



camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

2022EKO IPAR ESZENA BIDEAREN

KONSTELAZIOEN IBILBIDEAN

Nafarroako Foru Komunitateko
konpainientzako parte-hartze
oinarriak (lurralde gonbidatua)

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com



ZER DA KONSTELAZIOEN IBILBIDEA, IPAR ESZENA BIDEA PROIEKTUAREN BARRUAN?

Ipar Eszena Bidea arte eszenikoen truke kulturalerako proiektu bat da Euskadiko, Kantabriako, Asturiasko eta Galiziako produkzio kulturala lotzeko helburuarekin, Iparraldeko Donejakue Bideko ibilbideak erreferentzia eta ardatz nagusitzat hartuta. Lau lurralde horien arteko lotuneak dira ibilbide horiek, eta kultura lurralde bateratu bat eratu nahi dugu haien gainean, truke harremana erraztuz eta gure sektore eszenikoen arteko harreman kulturala sendotuz, orain arte horrelakorik ez zegoela aintzat hartuta.

Escena Galega (Galizia), **EscenAsturias** (Asturias), **ACEPAE** (Kantabria) eta **Eskena** (Euskadi) arte eszenikoetako produktoreen erakunde profesionalek sustatu dute **Ipar Eszena Bidea** proiektua; entitatez gaindikoa **Camino Escena Norte Agrupación de Interés Económico**an batu dira, proiektu hau garatu, kudeatu eta ekoizteko berariaz sortutakoa.

Ipar Eszena Bidea proiektuak bi ardatz nagusitan egituratzen du bere programazioa.

Batetik, **Konstelazioen Ibilbidea** dugu, proiektuaren bizkarrezurra eta proposamenaren ardatz nagusia. Antzerki, dantza, eta zirku berriaren emanaldien ibilbidea da. Logikoa denez, trukean oinarritzen da, hau da, autonomia erkidego baten produkzioek bira bat egiten dute proiektuan inplikaturako beste 3 autonomia erkidegoetako hainbat espaziotan barrena.

GALIZIAKO konpainiak Asturiasen, Kantabrian eta Euskadin arituko dira.

ASTURIASKO konpainiak Galizian, Kantabrian eta Euskadin arituko dira.

KANTABRIAKO konpainiak Galizian, Asturiasen eta Euskadin arituko dira.

EUSKADIKO konpainiek Galizian, Asturiasen eta Kantabrian arituko dira.

2022an, **Nafarroako Gobernu**ko **Kultura Zuzendaritza Nagusia- Vianako Printzea Erakundea-ren finantzaketari esker**, Foru Komunitate hau lurralde gonbidatua izango da. Nafarroako konpainiek Konstelazio Ibilbidean parte hartzeko aukera izango dute eta, gainera, Nafarroako hainbat herrietan Ipar eszena Bidearen programazioa ikusteko aukera izango da.

ZER DA KONSTELAZIOEN IBILBIDEA, IPAR ESZENA BIDEA PROIEKTUAREN BARRUAN?

Ikuskizunak hautatzeko irizpideak batetik, kalitatean, eta, bestetik, lengoaia eta estetiken aniztasun eta balio kulturean oinarrituko dira. Bide berri honen bitartez lotuko ditugun lurraldeetako arte eszenikoetatik onena ikusteko eta erakusteko asmoarekin sortu da proiektua. ***Ipar Eszena Bidearen*** programazio eszenikoa, horrenbestez, orokorra izango da, eta ahalegina egingo da edizio bakoitzean ikuskizunen eskaintza anitza izan dadin, haur zein familiei eta helduei zuzendutakoa, hainbat diziplina, lengoaia eta estetikarekin.

Bestetik, ***Hedatutako Bidean*** biltzen dira ikuskizun eta emanaldien ibilbide horrekin batera doazen jarduera guztiak, eta horrela testuinguru bat sortzen da zenbait eremutan —parte-hartzea, ikusleekiko harremana, kulturartekotasunaren sustapena edo sinergia profesionalak— topaketa, eztabaida, tailer profesionalekin edo trukean oinarritutako egoitza artistikoen programa batekin.

Ipar Eszena Bidearen programazioa hilabete eskasean garatuko da, zehazkiago, **2022eko irailaren 11tik (igandea) urriaren 9ra (igandea) bitarte**. ***Konstelazioen Ibilbideko*** ikuskizunen programazioa ostegunetik igandera bitarteko egunetan egingo da, honako antolaketa eta egitura hauei jarraikiz:

- 1.- Gutxienez zortzi emanaldi programatuko dira Galizian, Asturiasen eta Kantabrian, eta 6 emanaldi Euskadin.
- 2.- Proiektuan parte hartzen duten lau autonomia erkidegoetako konpainia aukeratuek hartuko dute parte, eta bakoitzak gehienez 4 emanaldi eskainiko ditu.
- 3.- Programak gutxienez 8 ikuskizun desberdin izango ditu.
- 4.- Nafarroaren kasuan, lurraldean gutxienez 3 emanaldi programatuko dira, eta Nafarroako konpainiek guztira beste hainbeste emanaldirekin parte hartuko dute (guztira, ez konpainia bakoitzeko) ibilbidearen barruan.

Proiektuari buruz informazio gehiago edukitzeko, kontsultatu www.escenanorte.com webgunea edo @escenanorte sare sozialak.

Ikuskizunak inskribatzeko zalantzak argitze aldera, erabilgarri egongo dira coordinacion@escenanorte.com posta elektronikoa.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATETIK DATOZEN KONPAINIENTZAKO 2022KO IPARRALDEKO ESZENA-BIDEKO KONSTELAZIOAK IBILBIDEAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. Konpainia bakoitzak ikuskizun bat (1) aurkeztu ahalko du. Ez da kontuan hartuko ikuskizunaren estreinaldi data. Estreinatutako gabeko ikuskizunak ere aurkeztu ahalko dira, bere ekoizpena baloratzeko nahiko informazio eta material txertatu ahal bada. Programazioa eremu profesionalean bakarrik jarduten duten konpainien/ekoizleen ikuskizunetara irekita dago. Konpainiek 5 autonomia erkidegoetako batean egoitza soziala euki behar dute, eta, era berean, ohiko lan profesionala lurralde horietan egin beharko dute.
2. Programazioan hizkuntza eszenikoen eta formatuen presentzia orekatua egongo da, arte eszenikoen ikuskizunen gakoaren barruan (klasikoa, garaikidea, dantza, testu antzerkia, zirkua, pertsona bakarreko ikuskizunak, haur eta familientzako antzezpenak, helduentzat...), betiere azkenean parte hartuko duten ekoizpenen ezaugarriak kontuan hartuz. Proiektuaren egungo aurrekontu-esparrua kontuan hartuta, gehienez 8.000 € + BEZ-ko katxetak onartuko dira.
3. **Konstelazioen ibilbideko** espazioei dagokienez, bost autonomia erkidegoetan errolda bat prestatzen ari gara, italiar erako espazioen (antzerkiak, entzunaretoak) eta espazio ezkonbentzionalen (kanpoaldeak, ondare espazioak) presentzia ziurtatzeko, eta azken horiek eskura edukiko dute ikuskizunen garapenerako beharrezkoa den produkzio teknikoa.
4. Konpainiek parte hartu dezakete programan parte hartzen duten autonomia erkidegoetako lau hizkuntza ofizialetan edo erkidego horietan presentzia duten edozeinetan: galiziera, asturiera, gaztelania eta euskara, edota horietako bitan (adibidez euskaraz eta gaztelaniaz, konpainiak ikuskizunaren bi bertsioak baldin baditu). Ikuskizuna hizkuntza batean edo bestean aurkeztea ez da izango inolaz ere abantaila edo desabantaila aukeratua izateko.
5. Ikuskizunak euskaraz aurkeztuz gero, eta hautaketa prozesuaren ezaugarriak direla medio, konpainiei, posible den neurrian, materialen testuak gaztelaniaz ere aurkezteko eskatuko zaie, baita bideoak hizkuntza horretan azpidatzita aurkezteko ere (ikusitako hautaketa prozesua 8. puntuan)
6. Era berean, eta nahiz eta deialdiari buruzko informazioa eta izena emateko orriak galizieraz, asturieraz, gaztelaniaz eta euskaraz egon, konpainiei erregutzen zaie informazioa gaztelaniaz betetzeko (ikusitako hautaketa prozesua 8. puntuan)
7. Galegozko, asturierazko edo euskarazko ikuskizunak hautatuko balira, emanaldietan bitartekari tekniko bat txerta liteke, piezen itzulpen edo azpigituluaren bitartez, eta erakundeak horren gainean jardungo luke espazioen ezaugarri eta aukeren arabera. Kasu horretan, konpainiari kolaboratzeko eskatuko zaio, testuak ekarriz, eta itzultzeko zein azpigituluak jartzeko prozesuan sor litekeen beste edozein zalantza edo galderari erantzunez.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATETIK DATOZEN KONPAINIENTZAKO 2022KO IPARRALDEKO ESZENA-BIDEKO KONSTELAZIOAK IBILBIDEAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

8. Hautaketa-prozesuari dagokionez, eta Nafarroako Foru Komunitatea 2022an ***Ipar Eszena Bidean*** gonbidatutako lurraldea dela kontuan hartuta, hau batzorde batek egingo du. Batzorde hori 4 elkarte sustatzaileetako (Escena Galega, EscenAsturias, Acepae eta Eskena) kide banak eta proiektuaren koordinatzaileak osatuko dute. Azken horrek idazkari-lanak egingo ditu eta parte hartzen duten konpainia guztiek akta irakurtzeko aukera izango dute.

9. Batzorde horrek Nafarroako Foru Komunitateko ikuskizun sorta bat hautatuko du, gutxienez 5 eta gehienez 8, ordena korrelatiborik gabe, eta, aldez aurretik hautatutako horien gainean, proiektuko koordinazio taldeak diseinatuko du ***Konstelazioen Ibilbidearen*** behin betiko programazioa, lengoia eta estetiken aniztasunaren, aurrekontu egokitzapenaren, produkzio premien, ekoizpen beharrezanaren edo data eskuragarritasunaren irizpideei jarraikiz. Ikuskizunak programatzeko egun baliodunak 2022ko irailaren 11tik (igandea) urriaren 9ra (igandea) izango dira.

10. ***Ipar Eszena bideak***, edizio honetatik aurrera, "Espectáculo recomendado Camino Escena Norte" zigilua sortu du aurrez hautatutako ekoizpen guztientzat, ibilbidean parte hartu ala ez, proiektuaren eremutik kanpo ekoizpen horiek sustatzeko eta banatzeko balioko duen kalitate-marka gisa.

11. Nafarroako Foru Komunitatetik datozen konpainientzat, 2022ko ***Konstelazioak ibilbiderako*** ikuskizunak hautatzeko prozesuaren egutegia honako hau izango da:

Apirilaren 25tik- maiatzaren 2 bitartean_ Ikuskizunen inskripzioa.

Maiatzaren 16ko asteen_ Batzordeen bilera eta aurre-hautaketa (hautagai-konpainia guztiei akta eta iragarki bidaltzea)

Ekainaren 20ko asteen_ Ikuskizunen behin betiko aukeraketa (IRAGARKIA)

12. Aukeratutako konpainiek programa zabaltzen laguntzeko eta komunikatzeko edukiak sortzeko konpromisoa hartzen dute (irudiak, hashtag-en irudiak), ***Ipar Eszena Bideko*** komunikazio taldearekin harremanetan jarrita.

13. Aukeratutako enpresek konpromisoa hartzen dute ikuskizunen inguruko bitartekaritza ekintzetan parte hartzeko (aurre-tailerrak, eztabaidak, *ikuskizunen ondorengoak*), beti ikuskizunen datetan eta kontuan hartuz muntatzea, desmuntatzea, prestaketa eta taldeen atsedeen denborak. Konpainiari bitartekaritza ekintza jakin bat eskainiz gero, eta horretarako aurretiazko prestakuntza behar bada (adibidez, tailer bat), orduan emanaldiaren kopuruaz gain ekintza hori ere ordaindu egingo da.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATETIK DATOZEN KONPAINIENTZAKO 2022KO IPARRALDEKO ESZENA-BIDEKO KONSTELAZIOAK IBILBIDEAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

14. Autonomia erkidego bakoitzean indarrean dauden hitzarmen kolektiboek ezarritako esparruen barruan lan egiteko konpromisoa hartzen dute hautatutako konpainiek, baita sektoreko dinamiken funtzionamendu zuzena zaintzeko erkidego eta/edo estatu mailan indarrean dagoen beste edozein araren arabera ere. Hautatutako konpainien kasuan, konpromiso hori berariaz jasoko da konpainien eta entitate antolatzailearen (*Camino Escena Norte Agrupación de Interés Económico*) arteko kontratu harremanean.

15. *Ipar Eszena Bidearen Konstelazioen Ibilbidearen* hautaketa prozesuan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

16. DPBLO: Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoko (DPBLO) 5. arBkuluari eta 2018ko maiatzaren 25eBk indarrean dagoen Europar Batasunaren Datuen Babeserako Erregelamenduari jarraikiz (EBDBE), jakinarazten dizugu zure kontakturako datuak konfidentzialtasun handienarekin tratatzen ari direla eta kontaktu-fitxategi batean txertatu direla, fitxategi horren arduradun bakarra AIE Ipar Eszena Bidea da. Nahi izanez gero sartze, ezeztatze edo aurkaritza eskubideak erabili ditzakezu info@escenanorte.com helbidera posta elektroniko bat bidalita.



www.escenanorte.com



PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:

